

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Datorren astelehenean zabalduko da Huarteko Zubiarte euskaltegiko ikastaroetan matrikulatzeko epea

Eskaintzaren barnean askotariko mailak eta ordutegiak sartzen dira eta, horrez gain, autoikaskuntzako saioak edo berariazko gaietarako buruzkoak

Ostirala, 2016.eko maiatzak 20

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak helduek euskara ikasteko ikastaroen eskaintzaren berri eman du 2016-2017 ikasturterako. Huarteko [Zubiarte euskaltegi](#)an egin ahalko da, eta datorren astelehenean aurrera, maiatzak 23, interesdunek matrikulatzeko aukera izango dute.

Zubiarte euskaltegiko eskaintza honako hau da: A1, A2, B1 eta B2 mailetako 10 eskola-ordu astean 09:15etik 11:45era, 17:00etatik 19:30era eta 19:30etik 21:30era; astean 15 orduz, EGAko ikastaro trinkoa abuztuaren 29tik irailaren 30era, goiz eta arratsaldean; astean 5 orduko ikastaroak A1, A2, B1, B2, C1 mailetan eta EGA bi saioetan (astelehen eta asteazken edo astearte edo ostegun) 09:15etik 11:45era, 17:00etatik 19:30era eta 19:30etik 21:30era; astean 4 orduz, mintzapraktika B2 eta C1 mailetan; autoikaskuntzako ikastaroak astean 2 orduko mintzapraktikarekin eta lan egiteko 6 orduko konpromisoarekin eta, horretarako, ordenagailua ongi erabiltzen jakitea eskatzen da; "Euskara hobetu azpitituluak itzuliz" berariazko ikastaroa, B2 eta C1 mailetan, eta, horretarako ere, ordenagailua ongi erabiltzea eskatzen da; eta A1, A2 eta B1 mailetako kanpo-ikastaroak hainbat zentrotan (astelehen, astearte eta ostegunetan emandako ordutegia lehenetsiko da).

Matrikula euskaltegiko egoitzan egin behar da (Zubiarte kalea, 13, 31620 Huarte) eta ondorengo webgunean: <http://euskaltegi.educacion.navarra.es/web/>.

Tasei eta ikastaro-eskaintzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, aipatutako webgunea kontsulta daiteke, eusubia@educacion.navarra.es helbide elektronikora idatzi edo 948 361 091 telefono-zenbakira deitu.